

# Nazioarteko sagardo onenen galan saria irabazi du Iturrieta sagardotegiak

Arantzazu Ezkibel Galdos 2022-10-05 15:01



Lehiaketako saridunak. Argazkia: 'lasidra.as'

Gijonen ospatutako sariketan lortu du saria, zaporedun sagardoaren modalitatean.

XII. Nazioarteko Sagardoaren Sariketa jokatu dute irailaren 28tik urriaren 2ra arte Gijonen. 21 herrialdeko sagardogileak batu dira sariketan, tartean Aramaioko Iturrieta sagardotegia. Guztira 230 sagardo mota aurkeztu dituzte sariketara.

"Lehenengo aldia da parte hartzen duguna, baina nabarmendu behar da sariketara aurkeztu dugun produktua proiektu esperimental baten sortutako sagardoa dela", azaldu du sagardotegiko arduradun Juanjo Peciñak.

## Proiektuaren babespean

Proiektuan parte hartu dute Iturrietak, Astigarragako Iparragirrek eta Iruneko Olak; horrez gain, Leartikar elikagaien teknologien zentroak eta Juan Zurriaran enologoak parte hartu dute proiektuan. Lau sagardo mota sortu dute, Sagezti izenarekin: aparduna, txiki, ardoa eta arrunta.

"Sagardoa eztiarekin nahastu dugu. Hala, zaporedun modalitatean lortu dugu saria", dio Peciñak. Aramaioko Iturrieta sagardotegiari eman diote zaporedun saileko sari nagusia; Ola sagardotegiak, aldiz, brontzezko saria irabazi du Sagezti Ardoa produktuarekin.

[Gizartea Aramaio](#)




## ALBISTEAK MUGIKORREAN

Debagoieneko albiste nabarmenenak eta azken ordukoak Whatsapp edo Telegram bidez jaso gura dituzu? Harpidetu zaitetz doan!

**WHATSAPP:** Bidali ALTA 688 69 00 07 telefono zenbakira –Whatsapp bidez–.

**TELEGRAM:** Batu zaitetz [@GoienaAlbisteak](#) kanalera.

Erantzun



## Ikusienak



[Ordubetez argindar barik geratu da Oñatiko herrigunea](#)

Jokin Bereziartua  
Lizarazu urt 17, 19:27  
[Oñati](#)



[Jauzi bat euskal musikaletan](#)

Eneko Azkarate Laspiur  
urt 16, 22:00 [Bergara](#)



[Elurra kota baxuetara jaitsiko dela iragarri dute](#)

Mirari Altube Arrese  
urt 17, 18:40  
[Debagoiena](#)



[Euria erruz eta elur maila geroz eta beherago](#)

Mirari Altube Arrese  
urt 17, 07:53  
[Debagoiena](#)



[Danbakaren biharamunean, sarituekin solasean](#)

[5. Danbaka](#)  
Amaia Ramirez de  
Okariz Kortabarria urt  
17, 13:02  
[Debagoiena](#)



[Debagoieneko kaleak zurituta esnatu dira](#)

Mirari Altube Arrese  
urt 18, 06:44  
[Debagoiena](#)

## Goiena.eus

Goiena Komunikazio Taldea



Otalora Lizentziaduna 31 · 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

Tel.: 943 25 05 05 · berriak[ABILDUA]goiena.eus



Codesyntaxek garatua

[HONI BURUZ](#)[LEGE OHARRA](#)[PUBLIZITATEA](#)[ARAUAK](#)[HARREMANETARAKO](#)[RSS](#)

Gipuzkoako Foru Aldundia



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)[AIKOR](#)[AIURRI](#)[ALEA](#)[AMEZTI](#)[ANBOTO](#)[ANTXETA](#)[ATARIA](#)[BALEIKE](#)[BARREN](#)[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)   [ERLO TELEBISTA](#)   [ERRAN](#)   [EUSKALERRIA IRRATIA](#)   [GEURIA](#)   [GOIENA](#)   [GOIERRI TELEBISTA](#)   [GUAIXE](#)   [HIRUKA](#)  
[KARKARA](#)   [KRONIKA](#)   [MAILOPE](#)   [MAXIXATZEN](#)   [NOAUA](#)   [OIZMENDI TELEBISTA](#)   [PLAENTXIA](#)   [TXINTXARRI](#)   [URIOLA](#)   [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)   [Plazanbazan](#)   [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)